



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2021eko OTSAILAREN 23an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2021eko otsailaren 23an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Koldobika Jauregi Zinkunegi
Jose M^a Aranzabe Urruzola
Concepcion Soria Legua
Unai Sorarrain Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkurako aktan onespena.**
 - ✓ **2020ko abenduaren 29an egindako ohiko bilkuraren akta.**
 - ✓ **2021eko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari 2021ko urteari dagokion ekarpenaren onespena, hala bada.**
- 5. Tolosaldea Garatzen-i 2021 urteari dagokion ekarpena burutzeko eskaera onestea, hala bada.**
- 6. Harituz, Tolosaldeko bertsozale elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
- 7. XVII. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memoriala-ri" 2020 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada.**
- 8. NISAE: Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak estatuko administrazio orokorrarekin 2017ko martxoaren 24ean eta Gipuzkoko Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzak-hitzarmenekiko atxikimendu protokoloaren onespena.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

9. Lan Arriskuen prebentzioaren zerbitzuaren esleipena, hala bada.

10. Kreditu Eragiketaren proiektua onestea, hala bada.

11. "Errotoretxea etorkizunaren giltzarria" proiektuaren onespena eta proiektu hau gauzatzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2020ko abenduaren 22ko aginduaren babesean, non, Ekonomiaren Garapen eta Ingurugiro sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia egiten den 2021 urterako.

12. Beste batzuk.

13. Mozioak, erreguak eta galderak.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2020ko abenduaren 29ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2021eko urtarrilaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 02/2021etik 22/2021ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

EUSKALTEL	96,81
MARCOS ESTEBAN	160,00
IMPORT-QUIMIA	389,20
LAVANDERIA LIZARRA	94,80



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

OSCAR GALINDO	121,00
KUKU LORE	105,44
TINTA INPRIMATEGIA	186,34
EUSKAL EGURRA	163,35
OTIS	443,44
SOLRED	113,80
KUKU LORE	15,75
BENEFIT	59,41
JUAN JOSE ARREGI	383,33
CALPARSORO INDUSTRIAL	34,52
MAQUELSA	96,47
MOVISTAR	179,32
MOVISTAR	55,80
GUREAK	4,97
EBA ERKIZIA	1.967,83
EDURNE BENGOA	302,50
SUBPRODUCTOS SATELL	1.452,00
LYRECO	94,08
GOIENER	17,61
GOIENER	376,61
GOIENER	26,27
GOIENER	436,34
GOIENER	310,06
GOIENER	39,77
GOIENER	110,33
GOIENER	57,38
GOIENER	120,14
GOIENER	595,61
GOIENER	290,76
ARGITU	183,42
CORREOS	3,94
IZADI	229,42
CURENERGIA	22,07
CALCOSA	55,66
ULAH	578,33
QUISER	174,75
GUREAK	3,22
KOMUNIKAZIOA BIZIAGOA	156,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

QUISER	38,87
MOVISTAR	179,08
MOVISTAR	55,39
EBA ERKIZIA	1.297,23
AMAIA NUÑEZ	33,00
NORTEGAS	433,99
NORTEGAS	20,70

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **12.366,11** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

UEMA, UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEARI 2021KO URTEARI DAGOKION EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko batzar Nagusiak, 2020ko abenduaren 12an ospatutakoak, beste gai batzuren artean, 2019ko gerakinaren zati bat udalei itzultzea erabaki zuela. Itzultzeko zatia 2020an udal bakoitzak UEMari ordaindu beharreko kuotaren hiruhileko batekoa izatea erabaki zuen Batzar Nagusiak. Itzulketarako bi baldintza betetzea beharrezkoa zen eta Alkizako Udalak betetzen zituenez Alkizako Udalarari 850,00 eurotako kopurua itzultzea erabaki zuen.

Kontutan izanik, goian aipaturiko batzarrean, beste gai bat ere erabaki zela, hau da, 2021 urteko kuotak. Ondorioz, Alkizako Udalak 2021 urtean 3.402,39 eurotako kuota bat ordaindu beharko du. Kuota, lau zatitan banatzen delarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko, 2020ko abenduaren 12an ospatutako batzar Nagusiak onartutako, 2020 urteari dagokion kuotetan, azken kuotaren itzulera, hau da, 850,00 euroko itzulketa onestea.

BIGARRENA: Alkizako Udalak 2021 urtean 3.402,39 eurotako kuota



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

bat ordaintzea UEMA-ri. Aipaturiko kuota, lau zatitan ordainduko delarik.

HIRUGARRENA: 3.402,39 eurotako gastua onestea, eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, 2021eko udal aurrekontuetako 481.335.00.05 kontu sailaren kontura.

BOSTGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZENI 2021 URTARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEKO ESKAERA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik 2021eko otsailaren 5eko datuz, Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko idatzia, non, 2020ko abenduaren 2ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, Alkizako Udalari 2021 urteari dagokion ekarpena 5.686,00 eurotako dela jakitera ematen dio, lehenengo ekarpena, 2.843,00 eurotako martxoaren 30erako eta bigarrenengo ekarpena irailaren 30erako egin behar dena 2.843,00 eurotako.

Ikusirik 2021ko Udal aurrekontuetako 422.943.02.01 partidaren aurrekontu nahikoa aurreikusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 2021 urteko ekitaldiari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 5.686,00 eurotako delarik.

BIGARRENA.- Gastua 2021 urteko udal aurrekontuko 422.943.02.01 partidaren kargura egitea.

SEIGARREN PUNTUA

HARITUZ, TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik 2021 urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.04 partidaren aurreikusitako diru kopuru nahikoa aipaturiko diru-laguntza esleitu eta ordaintzeko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozale elkarteari 500,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: 500,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2021 urteko Udal aurrekontuetako 422.334.00.04 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuaz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

XVII. AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALARI" 2020 URTEARI ZEGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XVII. Aiztondo Klasikoaren "Patxi Alkorta memoriala" 2020 urtean ospatzekoa zena, bertan behera gelditu zela COVID 19^a zela eta.

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, jakinarazi duela, datorren martxoaren 14ean XVII. Aiztondo Klasikoaren "Patxi Alkorta memoriala" egiteko asmoa duela. Aipaturiko memoriala antolatzeke, Udaletxeek egin behar duten ekarpena 20.800,00 euro izango dela jakitera ematen dute, Alkizako Udalarri, 2.108,91 eurotako ekarpena egitea eskatuz.

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikoko Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 2.108,91 eurotako ekarpena burutzea 2021eko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 Kontu sailaren kargura.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- 2.108,91 eurotako gastua onestea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

**NISAE: ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO
IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO
ADMINISTRAZIO OROKORREKIN 2017KO MARTXOAREN 24EAN
ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN
5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO
ATXIKIMENDU PROTOKOLOAREN ONESPENA**

Ikusita, Alkizako Udalak interesa duela administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetza-hitzarmen hauekiko atxikimendua eskatzea. Hain zuzen ere:

- Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetza hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetza hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 245 zenbakikoan, argitaratuta dago.

Ikusita Alkizako Udalak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartu nahi duela, harekiko atxikimenduari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, bere gain hartzen ditu hitzarmenean Gipuzkoako Foru Administrazioarako ezarritako betebeharrak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: NISAE: Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak estatuko administrazio orokorrarekin 2017ko martxoaren 24ean eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzeta-hitzarmenekiko atxikimendu protokoloa onestea.

BIGARRENA: Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea dagokion hitzarmena sinatzeko.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik, gaur egun lan arriskuen prebentzioaren zerbitzua, Alkizako Udaletxean Cualtis enpresak ematen duela.

Ikusita, Alkizako Udala ez dagoela oso gustora Cualtis enpresak ematen duen Lan arriskuen prebentzioaren zerbitzuarekin, azken hauen kontratua maiatzaren 3an amaitzen delarik.

Ikusita, Alkizako Udalak behar duela bertako lan arriskuen prebentzioaren zerbitzua eramango duen enpresa bat kontratatzea, medio pertsonal eta materialik ez duenez bere kabuz egiteko.

Guzti hauek ikusita, Alkizako Udalak Premank Lan arriskuen prebentzioa enpresari aurrekontu bat eskatu dio Lan arriskuen prebentzioaren zerbitzua eskaintzeko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. *Zerbitzu* kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000,00€ azpitik dagoelako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Premank Lan arriskuen prebentzioa enpresari, Alkizako Udaletxeko lan arriskuen prebentzioaren zerbitzua eskaintzeko kontratua esleitzea, 2021eko maiatzaren 3tik aurrera, 1.040,00€ (BEZa kanpo) diru kopuruan, gastua 160.153.40.05 eta 160.920.00.05 kontu sailen kontura "Asistentzia mediko-farmazeutikoa: brigada" eta "Asistentzia mediko-farmazeutikoa: administrazio orokorra" egingo delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Premank Lan arriskuen prebentzioa enpresari ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAMARGARREN PUNTUA
KREDITU ERAGIKETAREN PROIEKTUA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik, Alkizako Udalak 250.000,00 euroko kreditu eragiketa bat kontratatu behar duela ekitaldi honetan Gipuzkoako Gotzaindegiaren jabetzakoa den "Erretoretxearen" zati bat erosteko eta bertan egin behar dituen oinarritzko obra batzuen inbertsioak finantzatzeko.

Horretarako Kontu-Hartzailearen txosten ekonomiko-finantzarioa aztertu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Onartzea KUTXABANK finantza entitatearekin mailegua kontratatzeko proiektua, ondoko ezaugarriak dituen:

MAILEGUAREN DATUAK:

- ESPEDIENTE MOTA: INBERTSIOAK FINANTZATZEA
- FINANTZA ENTITATEA: KUTXABANK
- ZENBATEKOA: 250.000,00EURO
- AMORTIZAZIO EPEA: 10 URTE
- INTERES TASA: Interesa aldakorra, Hiruhileko EURIBOR-a gehi %0,41
- KONPUTATZEKO INTERES TASA: Hiruhilekoa
- ORDAINTZEKO MAIZTASUNA: Hilean behin

Maileguaren helburua: Gipuzkoako Gotzaindegiaren jabetzakoa den "ERRETORETXE" eraikinaren zati baten erosketa eta bertan oinarritzko obra batzuk egitea.

BIGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiari maileguaren berri ematea, hari baitagokio kreditu eragiketei buruzko tutoretza, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legeak 48.5 artikuluan jasotakoaren arabera.

HIRUGARRENA: Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jaunari ahalmena ematea kontratua eta erabaki hau eraginkorra izateko behar diren dokumentuak formalizatu ditzan.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAMAİKAGARREN PUNTUA

“ERRETORETXEА ETORKIZUNAREN GILTZARRIA” PROIEKTUAREN ONESPENA ETA PROIEKTU HAU GAUZATZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGITEA, EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENЕKO SAILBURUAREN 2020KO ABENDUAREN 22KO AGINDUAREN BABESEAN, NON, 2021EKO EKITALDIRAKO, 2015-2020 ALDIRAKO EAEKO LANDA GARAPENЕKO PROGRAMAREN ESPARRUAN ONARTU ZIREN LEADER EREMUKO LANDA-INGURUKO UDALERRIEN EKONOMIA SUSTATU, GARATU ETA DIBERTSIFIKATZEKO LAGUNTZAK

Ikusirik 2020ko abenduaren 22ko agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta ingurumeneko sailburuarena, non 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapeneko programaren esparruan onartu ziren Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia, 2021 ekitaldirako.

Ikusirik, Alkizako Udalak asmoa duela aipaturiko diru-laguntza honen babesean, “Erretoretxea etorkizunaren giltzarria” izeneko lanak aurrera eramatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- “Erretoretxea etorkizunaren giltzarria proiektua” gauzatzeko, egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2020ko abenduaren 22ko aginduaren babesean, non 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapeneko programaren esparruan onartu ziren Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia, 2021 ekitaldirako.

BIGARRENA.- “Erretoretxea etorkizunaren giltzarria” izeneko proiektua aurrera eramateko onespena ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

12.1. DANENA TXIRRINDULARITZA ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA AZTERTZEA, HALA BADA

Ikusirik Danena Txirrindularitza Elkarteak eginiko eskaera, non dioen, bailarako gazteekin txirrindularitza jarduera aurrera eramaten dutela, baina jarduera hau aurrera eramateko finantzazioa behar dutela. Horregatik Aiztondo bailarako udaletxeei diru-laguntza egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Danena Txirrindularitza Elkarteari 500,00 eurotako ekarpena burutzea 2021eko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 500,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Danena Txirrindularitza Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK

13.1.MARTXOAK 8: EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA, “ZAINZA BERDINTASUNEAN” ADIERAZPEN INSTITUZILAREN ONESPENA

Ikusita Martxoak 8: Emakumeen nazioarteko eguna inguratzen ari dela, “Zaintza Berdintasunean” adierazpen instituzionala aurkeztu da, non ondorengoa dioen:

ZAINZA BERDINTASUNEAN



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

“Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena.

Zaintzaren arduraren emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxe barruan ere. Hain zuzen ere, haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Gainera, emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera.

Gure gizarte-ereduak emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak. Orain berriz, pandemiak zaintza-sistemaren prekaritatea azaleratu du eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan. Horregatik guztiagatik, Alkizako Udalak, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

- *COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua gehitzen dela bermatuko du.*
- *Udalak hartzen dituen erabakietan eta gauzatzen dituen proiektuetan genero-ikuspuntua aintzat hartuko du. “*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Martxoak 8: Emakumeen nazioarteko eguna “Zaintza berdintasunean” adierazpen instituzionalaren onespina.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakariorde Jaunak bilkura 20.00-etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela oneste duena.

